

Urtarrilaren 6an **Jaunaren Agerkundera**

Agurra

Herri guztien argia, edertasuna eta salbamena den Jesus Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Agerkundera egun honetan, ikusten dugu, Mesiasen salbamena Israel herria gainditu eta mundu osora heltzen dela, denentzat argi izateko. Argi horren arabera bizi nahi dugu senidearen bidera ateraz. Horixe izan daiteke geu ere Jesusentzat dohain preziatu, ukendu gozo eta usain atsegin izateko era bikaina.

Ospa dezagun Eukaristia: guretzat ematen den Jauna.

Damu-otoitza

Senideok: Bihotz garbi eta apalekoek bakarrik jaso dezakete Eguberrian ospatzen dugun Jainko gizon eginaren misterioa eta berri ona. Aitor ditzagun geure bekatuak, eskuzabal eskaintzen zaigun salbamena onartzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, diren guztiei izatea eman diezun / Aitarenekin betiereko Hitza : erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu honetara etorri / eta mundu honek onartu ez zaituen egiazko Argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon eginik / gure artean bizilekua jarri duzun Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Aintza

Betleemgo herrian hasitako poza mundu osoari agertzen zaio gaur. Jaunaren Agerkundera ospatzean kanta dezagun Aintza Zeruetan.

Otoitza

**Jainko Aita, egun honetan
izar baten bidez agertu zenien atzerritarrei
zeure Seme bakarra;
sinesmenez ezagutzen zaitugunok
eraman gaitzazu zure aintzaren ederra ikustera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Poesiaz eta hitz ederrez, Jerusalem berria nolakoa izango den agertzen digu Isaiasen irakurgaiak. Jerusalem berri hori gizadi osora zabaltzen da: Jaunaren argitan iluntasunaren kateak hautsirik berritua izango baita dena eta askatasunez beteak gizon-emakume guztiak.

Lehenengo irakurgaia (*Is 60, 1-6*)

Isaias profetaren liburutik

Jaiki zaitetz, argitu, Jerusalem, badator zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, lainoak estalirik dauka lurra, eta ilunpeak inguraturik dauzka herriak. Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da, eta Haren aintza agertuko zure gainean. Zure argitara etorriko dira herriak, zure egunsentira erregeak. Jaso itzazu begiak zeure inguruan, eta ikus: guzti horiek elkartu dira eta zuregana datoz; zure semeak urrutitik datoz, besoetan dakartza zure alabak. Hori ikustean,

gainezka poztuko zara; harrituko zaizu bihotza eta zabalduko, itsasoko aberastasunak zuregana etorriko baitira, eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intzentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotela.

Erantzun-salmoa (Sal 71, 1-2. 7-8. 10-11. 12-13)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
 a - gan - di - ko ga - rai - pe - na.

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeari,
 zure zuzentasuna erregearen semeari.
 Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
 eta zure gizagaixoak zuzenbidez. R/.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
 bakea ugari ilargia itzali artean.
 Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
 lbaitik lehor mugaraino. R/.

Tarsisko eta uharteetako erregeek ‘
 ekarriko dizkiote esku-irakatsiak,
 Arabiako eta Sabako erregeek emariak.
 Errege guztiak dute ahuspez agurtuko,
 atzerri guztiak zerbitzatuko. R/.

Onik aterako baitu, oihuka ari den jende xehea,
 eta laguntzailerik ez duen dohakabea.
 Apalarentzat eta behartsuarentzat izango du errukia,
 salbatuko du behartsuen bizia. R/.

Bigarren irakurgaia (*Ef 3, 2-3a. 5-6*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Senideok: Entzunik duzue, noski, Jainkoaren grazia zuen artean zabaltzeko eginkizuna eman zaidala. Goi agerpenez ezagutarazi baitzait niri Kristoren misterioa: Lehengo denboretan gizakiei jakin erazi ez zitzaien misterioa, orain Espirituaren bitartez Haren apostolu santuei eta profetei agertua izan zaien bezala: Jesu Kristorengan ondare beraren kide direla, alegia, atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinordekide.

Aleluia (*Mt 2, 2*)



Haren izarra ikusi dugu sortaldean,
 eta hemen gatoz Jauna gurtzera. R/.

Ebanjelioa (*Mt 2, 1-12*)

Ebanjelio ondoren: 2019. urteko ospakizunen berri ematea

Ebanjelioaren ondoren, eman daiteke 2019. urtean zehar izango diren liturgi ospakizunen berri. Erromako Pontifikalean jaso dagoen eran aurkezten dugu hori egiteko baliabidea:

Pozkarioz jakinarazten dizuet, senide maiteok,
Jainkoaren errukiari esker
Jesu Kristoren Jaiotzaren jaiekin alaitu garen bezala,
alaituko garela gure Salbatzailearen Piztuerarekin ere.

Honela, gogoratzen dizuet
pazko-jaietarako prestatzen gaituen Garizuma santua
martxoaren seian hasiko dela aurten, Hausterre egunez,
eta apirilaren hogeita batean,
Jaunaren Piztuerako igandean
ospatuko dugula barne-pozez
Jesu Kristo gure Jaunaren Pazko santua.

Pazkoko berrogeita hamarraldiaren bukaeran,
Ekainaren bederatzian
Pentekoste Festaburua ospatuko dugu.
Jakizue baita ere,
ekainaren hogeita hiruan ospatuko duela, aurten, Elizak
Kristoren Gorputz-Odolen festaburua;
eta abenduaren batean izango dela
Abendualdiko lehenengo igandea,
Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera itxaronez.

Berari ospea eta aintza gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Homiliarako argibideak

Izarra zuten gidari

Era askotako zailtasunak bizi ditu gure munduak, horietako asko gizakion egoismoak eta bekatuak eragindakoak. Fededunok ez dugu utzi behar itxaropena ken diezaguten; aitzitik, gure herrialdeak aurrera egin dezan lagundu behar dugu, ez atzera. Jainkoaren herriak ere etorkizunarekin egin zuen amets krisi garaian, eta arrosa

kolorekoa imajinatu zuen (Is 60,1-6). Garai hartako garraztasunak gozaten lagundu zien, segur aski. Euren urratsak Jerusalemerantz bideratzen imajinatu zituzten, han **Jainkoa aurkitzeko** eta haren gauza miragarriak aldarrikatzeko.

Errege magoak altxorrez beteta ekin zioten bideari, **juduen errege** zen jaioberriaren bila. Errege horren familiak ere opariak eurekin truka zitzaizkien itxaropena zuten (Mt 2,1-12). Itxura denez, etsigarria izan zen esperientzia. Hiriburuan eta erregearen jauregian ez zuen jaioberriaren berririk. Idazlari eta apaiz nagusiek herrixka batean jarri zuten arreta, Betleemen. Norbait ospetsua aurkitzeko itxaropenak zapuztu egin ziren, itxuraz. Aurkitu zuten errealitatea etsigarria izan zen: etxe xume bat, emakume bat eta haur bat. Han ez zegoen ez jauregirik, ez goardiarik, ez atezainik, ez morroirik.

Eta hala eta guztiz ere, magoek ez zuten euren hasierako proiektua aldatu. Ez zuten esan “goazen hemendik”. Beraz, betetzat joko zituzten euren itxaropenak. Euren kutzak zabaldu, eta opariak eskaini zizkieten. Ez dakigu Mariak zer eman zien. Baina zerbait aldatu zen euren barruan; horregatik itzuli ziren beste bide batetik. Ez zitzaizkien asko inporta Jerusalemgo juduen erregea. **Fedearen dohaina** jaso zuten, noski, horixe da Jesusek biziaren dohainarekin batera egiten digun opari handia.

Jainkoaren bilaketa da fedea. Magoen kasuan bezala, bide bihurria da bilaketa hori. Berehala sentitu zuten juduen Erregea hiriburuan, Jerusalem, Herodesen jauregian, bilatzeko tentazioa. Horixe zen normalena. Ez da erraza **aldian aldiko ezaugarrien irakurketa** deitzen duguna; nahasi egiten gaituzte askotan, ez baitakigu zeinu horiek interpretatzen. Nagusi den kulturak lilura gaitzan uzten dugu askotan. Hauxe errepikatzen digu horrek, behin eta berriz: zoriotsu izateko, dirua eduki behar da, kontsumitu egin behar da, ongi pasatu behar da; hori lortzen laguntzen duena da benetan aurrerapena.

Errege bat bilatzen bada, jauregi, morroi, soldadu, luxu eta bizitza errazean pentsatzen dugu berehala. Baina batek bide hori hartzen badu, berehala desagertzen da begi bistatik gidari duen izarra. Jesus ez dugu bide horretatik aurkituko.


Aldian aldiko ezaugarriak ulertzeko, Jainkoaren Hitzaren argitan irakurri behar dira. Jainkoak beste modu batera ikusten ditu gauzak. Haren begitan, jaiotzeko leku ezin hobea izan daiteke Betleem bezalako garrantzirik gabeko herritxo bat. Ez da behar jauregirik. Nahikoa da artzainen gela bat. **Pobreen artean** aurkituko dugu Jesus, Mariarekin. Yahveren pobreen talde horretakoa da Maria; ez zuten munduko gauza handietan itxaropena jarri Jainkorengan jarrita zuten euren itxaropen guztia. Errege magoek Betleemerako bidea hartu zutenean, berriz agertu zitzairen izarra. Errege magoek, herri paganoek, aurki zezaten utzi zuen Jesusek; bien bitartean, hautatuko herriaren tradizioei lotuta geratu ziren Herodes eta apaiz juduak, lasai-lasai, eta Salbatzailearekin aurkitzeko aukera galdu zuten (Ef 3,2-6).

Magoek hartutako poz handiak, hasitako abenturari ez ezik euren bizitza osoari ere emango dio zentzua; horregatik gurtu zuten, horregatik eskaini zizkieten opariak, Jainkoak Jesusen bidez egin digun opari handiari erantzuteko. Eukaristia honetan, eskain diezaiogun Jaunari gure Jainko-egarria. Poz handiz aseko digu Hark egarri hori. Justizia egarria da Jainko egarri hori, bakezko eta maitasunezko Haren Erregetzaren egarria.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainkoari, egun honetan agertu baitie nazio guztiei Bere indarra, herri guztiei salbamena eta guri Bere aintzaren argi distiratsua:

Erantzuna: Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.



- Elizaren alde, Kristorengandik datorren argiarekin gizaki guztiak ilunaldietatik aska ditzan, guztiak gogoberotuz Ebanjelioaren indarra gailendu dadin munduko ezin guztien artean.
- Herrialde ezberdinetan jaio berriak diren kristau-elkarteen alde, bere gaztetasuna eta sendotasuna indar-emaila gerta dadin Eliza osoarentzat.
- Ebanjelioaren argia ezagutu ez duten herrien alde, eta baita Kristo ezagutu arren Bere bidetik aldendu diren guztien alde; denak iritsi daitezzen Kristo Jauna dela aitortzera eta egiazko Jainko bezala gurtzera.
- Kristoren benetako argia ezagutu dugunok, egiazko fedean sendoturik gero eta leialago bizi gaitezen Ebanjelioko irakaspenetan.

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun eta betierekoa, eta egizu zure Semea ezagutu eta Herri guztien Errege eta Jaun gurtu dugunok, argiaren seme-alaba bezala bizirik Kristoren distira helaraz dezagula gizarteko eta munduko bazter guztietara. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Magoen egun honetan, katekista guztien eguna ere bada. Gure parroketan beraiek dira Kristo “agertzen” dutenak, ematen duten heziketaren eta testigantza bidez. Gorengo iturrira goazen une honetan, eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari katekista guztiengatik.

Prefazioa: Agerkundeko Prefazioa. (*Meza-liburuan, 320. or.*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Etor bedi gure bidera, Aita,
nonahi eta beti zeruetako argia,
sakramentu honetan hartu duguna
fede garbiz har dezagun eta maitasun zintzoz bete.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Ilunpetatik bere argi miragarrira deitu zaituzten Jainkoak
isur dezala zuen gainera bere bedeinkapena
eta sendo zaitzatela sinesmenean,
itxaropenean eta goi-maitasunean. R/. Amen.**

**Gaurko egunez ilunpetan argi distiratsu
munduari agertu zitzaion Kristok
bere jarraitzaile egin zaitzatela
eta zuen anai-arrebentzat argi. R/. Amen.**

**Magoek, izarra gidari, Kristoren bila ibili ondoren,
poz handiz aurkitu zuten bezala,
zuei ere Jainkoak eman diezazuela,
mundu honetako ibilaldiaren ondoren,
argitik argi den Kristorengana iristea. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.